

ESKOLAKO AGENDA 21

2015-2016 IKASTURTEA: "BIOANIZTASUNA"

IGORREKO FOROA 2016.05.25

Bileraren lekua: IGORREKO UDALA

Hasera eta amaiera: 11,30-12,30

Bertaratutakoak Eskolen arteko Forora:

Igorreko Alkatea

Inazio Zubizarreta eta Arratia Institutuko Ignazio Zubizarreta ikastetxeko eta Arratiako institutuko ikasleak eta irakasleak

Arratiako Mankomunitateko Teknikaria: Aitor Uriguen

Ingurugela-CEIDA: Miren Agirreazkuenaga

ONDOAN, S. Coop: Leire Egaña

Guztira: 14 pertsona

Gai-zerrenda

- Urtean egindako lanen aurkezpena Udalari ezagutarazi.
- Ikastetxeak hartutako konpromisoen eta Udalari zuzendutako proposamenen aurkezpena Eskolen arteko foroan adostutakoak barne).

Alkateak ongi-etorria ematen die bertaratutako guztiei. Ondoren, bi ikastetxeetako ikasleak ikasturtean zehar egindako lana aurkezten dute, baita hartutako konpromisoak eta udalari luzatzen dizkioten proposamenak ere.

Ikasturtean garatutako ekintzen barnean honakoak aipatzen dituzte ikasleek: Institutua: horma irudiak biodibertsitatea zer den azaltzeko, lorategia martxan ipini dute eta jardin bertikala ipini dute, hazien tailerra antolatu dute eta Gernikako piperren haziak erabili zituzten, ibilbidea egin dute Igorretik bertako zuhaitzak eta inguruko biodibertsitatearen egoera ezagutzeko, e.a. Inazio Zubizarretakoak, patruila berdea osatu dute, Eskolako Agenda 21 egun antolatu dute, baita Sagar eguna ere, Zumaian flysha ezagutzeko ibilaldia egin zuten, Errekamari antolatu zuten HHkoei zuzendua konpost-gailura bisitak, hazien tailerra, Urdaibaira bisitak, Smartean jolasak, Hondakinen berrerrabilpenari buruzko lehiaketa eta ibilbidea eskola inguruko zuhaitzak eta inguruko biodibertsitatea ezagutzeko, besteak beste.

Ondoren, ikastetxe bakoitzak 2015-2016 ikasturterako Udalari luzatutako proposamenak aurkezten ditu:

INAZIO ZUBIZARRETAREN PROPOSAMENAK UDALARI

1. Herriko bazterrak garbitu bertako animaliak eta landareak arrisku barik hazteko
2. Landaketa berrietan bertako zuhaitzak landatzea
3. Herriko edukiontzia egokitu, hondakinak sailkatuta isuri ahal izateko.
4. Bertako zuhaitzetan kartelak ipini

ARRATIAKO INSTITUTOKO PROPOSAMENAK UDALARI

5. Bertako zuhaitz gehiago landatu, kanpoko espezieak landatu behar
6. Panpako lezkek kendu
7. Zuhaitzak eta basoak haien osotasunean zaintzea gustatuko litzaiguke, horretarako zuhaitzen ezagutza kartelak ipintzea

Aurreko ikasturteko proposamenen inguruan (ikus 2014-2015eko akta) Udalak esaten du kontutan hartzen ari dela.

Aurrekoarekin batera, ikasleek 2016ko maiatzaren 16an Arratia mailako Eskolen arteko foroan hartutako konpromiso eta proposamen bateratuak ere aurkezten dizkiote Alkateari.

Arratia mailako proposamenak udalari

1. Arriskuan dauden espazioak defendatzea eta zaintzea.
2. Baso landaketak egiten direnean bertako zuhaitzak landatzea eta identifikatzea.

Arratia mailako ikastetxeen konpromisoa

1. Arriskuan dauden espezieak identifikatu eta zainketa nola egin behar den aztertu.
2. Bertako zuhaitzen kartelen edukien diseinua egin.

Alkateak zorientzen ditu ikasleak egiten duten lanagatik eta amaitzeko taldeko argazkia ateratzen da.

Jarraian, Udal foroko argazki batzuk bildu dira.





Igorreko Udal foroan parte hartu duten ikasleen argazkia

MILA ESKER GUZTIOI ETA ZORIONAK EGINDAKO LANAGATIK!